

ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Sei aipu autore bila

**G**oibel nagoenean, ama zenaz oroitzen naiz gehien. Aurrekoan notizia txar bat jaso eta instintiboki hari deitzeko bulkada sentituen, aspaldiko partez. Txunditu nintzen beharraren gertutasunaz. Nahi nuke haren babesa nolabait sentitu ahalko banu.

Garai batean *Amar* izeneko liburua idazteko tentazioa eta ia proiektua izan nuen, hasieran amari eskainitako olerkiez osatua egon nahi zuena, baina, berehala, sentimenduaren hurbilak lanaren kalitatea neurtzea galarazten zidalako, hari buruzko poemarik gabe, omenaldi moduan, izenburuarekin baino geldituko ez zena. Halere, izena justifikatzeko aipu egoki bat bilatu behar nuen. *Amar*ik, latinez, “maitatua izan” esan nahi du. Liburuak maitasunaren ifrentzua (alde pasiboa) erakutsiko zuen. Bururatutako aipua, “*Si vis amari, ama*” (Maitatua izan nahi baduzu, maita ezazu), esaldi ospetsu baten kopia argia zen: “*Si vis pacem, para bellum*”.

Aipua nori egotzi baino ez zitzaidan falta. Errazena, zenbat idatzi zuen aintzat hartuta, Seneka zen. Sinesgaitza egin zitzaidan Senekak benetan esandako perpausa dela jakitean, Luziliori idatzitako 9. gutuneko. Baina ez ninduen hainbeste ere harritu, Senekak dena irakurri, dena ikusi eta dena esan baitzuen, ia Jacques Dutronc-ek kantatu bezala: “*J’ai tout lu, tout vu, tout bu*” (Dena leitu, dena ikusi, dena edan dut).

Bide batez, Dutroncen letra honen jatorria bilatzen saiatu naiz, beste nonbait irakurri uste baitut, Mme de Sevignérenean, esanen nuke. Baina topatu dudan antzekoena, hirugarren pertsonan adierazia, La Bruyère-ren testu baten hasiera da: “Arriasek dena leitu du, dena ikusi du”.

Argi dirudiena da guztia esanda dagoela. Euskal literaturari menturaz egin ahal izan diodan ekarpen bakarra, “oro errana da,



JOSU SANTESTEBAN

baina ez nik” lerroa, begien bistako kontu ezinago jakin baten formulazioa da, zeinetan meritua, koherentea izan behar badut, ezin baitiot neure buruari eman. Oraindik ez dut aurkitu nik ez beste zeinek esan ote duen. Hemendik herritarren laguntza eskatu nahi nuke aipuaren autorea bilatzeko eta nire literatur hutsaltasuna argitzeko.

Zailtasunaz jakitun naiz, literaltasunari arreta ipini behar bazaio. Are Borgesek ere, aipatzaile handi horrek, ez zuen beti hitz zuzenekin asmatu. Poema batean aitortzen zuen: “*Cito mal a Virgilio*” (Virgilio gaizki aipatzen dut edo –Juan Garziak Borges bera itzultzean trinkotzen duen moduan– *daipat*). Hutsegite ohar-tua, bilatua, lanketa poetikoaren gakoetakoa daiteke. Borges harrotu daiteke, behin gutxienez, ilargiaz mintzo, Virgilio hobetu zuelako, gaizki aipatu omen zuen horretan, hain zuzen.

Eta ez da gauza erraza, historia osoan autore aipatuenetakoa Virgilio delako, neurtitz beti zuzeneko. Nik aipamen bitxi askoak aurkitu ditut, Virgiliorenak. Dylan Thomasek poema batean lerro surrealista hau ematen digu: “*The white bear quoted Virgil*” (Hartz zuriak Virgilio aipatu zuen). Berriki jakin dut Thomasek irudia nondik atera zuen; nori eta surrealistentek gorrotaturiko Anatole Franceri hartu zion. *Pinguinoen ubartea* eleberrian ondokoa gertatzen da: “Izotz bloke baten gainean (...) hartz eme bat zegoen eserita, bere kumea besoetan zuela, eta Maelek entzun zion Virgilioren bertso hau astiro xuxurlatzen: *Incipe, parve puer*. Orduan agureak, tristuraz eta durduzaz beterik, negar egin zuen”.

*Incipe, parve puer*. Hasi, ene ume-txoa. Aipuaren jarraipena bilatu dut Virgiliorenean.

*Incipe, parve puer, risu*. Hasi, ene umetxoa, irribarrez.

Bai, ama, saiatuko naiz. ■

«

Garai batean *Amar* izeneko liburua idazteko tentazioa eta ia proiektua izan nuen, hasieran amari eskainitako olerkiez osatua egon nahi zuena, baina, berehala, sentimenduaren hurbilak lanaren kalitatea neurtzea galarazten zidalako

»



irudia:  
Antton Olariaga

